# PRAKTIKA – 2023ko abenduak 4

**TALDEA_____**

1. **Kutsaduraren dilema**. Bi siderurgia-enpresen dilema aztertu behar duzue. Enpresek honako aukerak dituzte: airea eta ura gutxiago kutsatzeko neurriak hartu ala orain arteko modu berean jarraitu kutsadura txikitzeko neurririk hartu gabe:
   - **a)** Zein da irabazien matrize horretan planteatutako dilema? Hitzez deskribatu. **(0,25 puntu)**
   - **b)** Aztertu enpresa bakoitzaren estrategia dominatzailea. **(1,50 puntu)**
   - **c)** Identifikatu oreka ez kooperatiboaren arabera probabilitate handieneko soluzioa(k). Soluzio hori(ek) Nashen oreka al da/dira. **(0,75 puntu)**
   - **d)** Zein da soluzio hoberena gizartearentzat? Soluzio hori Nashen oreka al da? **(0,75 puntu)**
   - **e)** Zer neurri har dezake arautzaileak aurreko emaitzak kontuan hartuta? **(0,25 puntu)**

| | | **Thoussen Krup** | |
|---|---|---|---|
| | | **Kutsadura handia** | **Kutsadura txikia** |
| **Artzelor Wittal** | **Kutsadura handia** | $\pi_A$= 100 M. euro<br>$\pi_T$= 100 M. euro | $\pi_A$= 130 M. euro<br>$\pi_T$= -30 M. euro |
| | **Kutsadura txikia** | $\pi_A$= -40 M. euro<br>$\pi_T$= 120 M. euro | $\pi_A$= 100 M. euro<br>$\pi_T$= 100 M. euro |

2. Merkatu bat hornitzen bi oligopolista daude. Merkatu eskaria **D: P=1.000 – 5Q** da (Oharra: Q=Q1+Q2). Kostu-funtzioak honakoak dira: $KT_1=5Q_1^2+25Q_1$ eta $KT_2=15Q_2^2+175Q_2$.
   - **a)** Kalkulatu Cournoten soluzioa (**3 hamartar** erabili): $\pi_1$, $\pi_2$, **eta** $\pi_{TOT}$ (erreakzio-funtzioen grafikoa EZ da egin behar) **(2,50 puntu)**
   - **b)** Demagun orain bi enpresak lehiaren kontrako akordioa egitea pentsatzen ari direla. Kolusioan lortuko dituzten mozkin maximoak matematikoki kalkulatzean honako emaitzak lortzen dira: $\pi_{TOT}$**=32.500 euro**; $\pi_1$**=29.500 euro eta** $\pi_2$**=3.000 euro. Akordioa egiteko pizgarriak al dituzte? Zergatik? Hitzez azaldu. (1,00 puntu)**

3. Oligopolio-merkatuen funtzionamendua aztertzeko hainbat eredu landu ditugu.
   - **a)** Azaldu Cournoten ereduaren ezaugarriak **(0,75 puntu)**
   - **b)** Noiz da gomendagarriagoa Cournot erabiltzea $S_{LJ}$ eredua erabili beharrean? **(0,75 puntu)**

4. Lehiaren Euskal Agintaritzaren hitzaldian Euskadin (eta Espainian) lehiaren kontra izandako hainbat kasu aipatu ziren. Horietako bat aipatu eta zehaztasunez deskribatu gertatutakoa **(1,50 puntu)**